

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Udako hezkuntza ekintzetarako diru-laguntza deialdia ireki du Hezkuntzak, desgaitasunen bat duten ikasleei zuzenduta

Hezkuntza departamentuak 30.000 euro bideratuko ditu laguntza hauetara eta gaurtik hasita, uztailaren 3ra bitartean eska daitezke

Osteguna, 2018.eko ekainak 14

Hezkuntza departamentuak udako ekintzetarako laguntza deialdia ireki du, desgaitasunen bat duten ikasleen gurasoei zuzenduta. Era horretan, Departamentuak aukera berdintasunaren printzipioa bermatzen laguntzen du, ahal den modurik eraginkorrean. Deialdiaren asmoa da eskatzaileei era honetako ekintzetan izen-emateak dakarkien gastua zertxobait arintzea eta administrazio publiko nahiz erakunde pribatuek antolatutako udako ekintzetan parte har dezaten erraztea. Diruz lagunduko dira ekainaren 25etik irailaren 7ra bitartean antolatzen diren udako ekintzak. Hala, desgaitasunen bat duten ikasleek, 3 eta 21 urte bitartekoek, aukera izango dute laguntzak eskatzeko.

Deialdira aurkezteko epea, beraz, zabalik dago eta uztailaren 3ra bitartean egin ahalko dira eskariak. Laguntzak per capita errentaren arabera kalkulatu dira, [deialdian](#) bertan zehazten den eran.